

Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.

Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2023ko maiatzaren 2an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el día 2 de mayo de 2023, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“HERIOTZA DUINERAKO ESKUBIDEA

Azken hamarkadetan, eutanasiari buruzko eztabaida dabil gure gizartean, bai bioetikaren ikuspegitik, bai zuzenbidearen ikuspegitik. Eztabaida hori berdin dabil hala eremu sanitarioan eta akademikoan nola, oro har, gizartean, eta aldian-aldian piztu izan da, iritzi publikoa astindu duten kasu pertsonal batzuen ondorioz.

Hala, 35 urtean baino gehiagoan, eztabaida sozial eta politiko bizia izan da bizitzari buruz, heriotzari buruz eta pertsona bakoitzak, sendatzeko edo hobetzeko perspektibarik ez duela, sufrimendu jasanezinei amaiera emateko duen eskubideari buruz. Urte hauetan, gizarte zibileko erakundeek lan eskerga egin dute eskubide hori arautzearen alde, eta, azkenean, hainbatetan saiatu eta huts egin ondoren, 2021ean onetsi eta argitaratu zen eutanasia arautzen duen legea (martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoa).

Eutanasia arautzeko lege hori Kongresuaren eta Senatuaren babes zabalarekin berretsi zen, eta, inkesten arabera, euskal herritarren % 80k baino gehiagok babesten du.

Lege horrek despenalizatu egiten du, betiere ondo zehaztutako egoera eta kasuetan, gaixo dagoen pertsona bati hiltzen laguntzea, hark hala eskatzen badu eta erabaki hori askatasun erabatekoan, ezein eratako kanpo-presiorik gabe, hartu duela bermatzen bada. Era berean, legeak hiltzen laguntzeko eskaera egiteko baldintzak eta prozedurak arautzen ditu, eta osasun-sistema publikoen zorro komunean sartzen du.

“DERECHO A UNA MUERTE DIGNA

El debate sobre la eutanasia, desde el punto de vista de la bioética como del derecho, lleva produciéndose en nuestra sociedad durante las últimas décadas; este debate se da tanto en los ámbitos sanitarios y académicos como en la sociedad en general, y en ese tiempo se ha avivado periódicamente a raíz de casos personales que conmovieron a la opinión pública.

Así, después de más de 35 años de intenso debate social y político sobre la vida, la muerte y el derecho de cada persona a poner fin a sufrimientos intolerables sin perspectiva de curación o mejoría, tras la gran labor en estos años de las organizaciones de la sociedad civil luchando por esta regulación, y luego de varios intentos fallidos, el año 2021 registró la aprobación y publicación de la ley que regula la eutanasia, Ley Orgánica 3/2021, de 24 de marzo.

Esta Ley de regulación de la eutanasia se sancionó con un amplio apoyo del Congreso y el Senado y, según las encuestas, viene respaldada por más del 80 % de la población vasca.

La aprobación de esta ley despenaliza la ayuda a morir a personas enfermas cuando así lo soliciten, en determinadas situaciones y en determinados supuestos muy definidos, y sujetos a garantías que salvaguardan la absoluta libertad de la decisión descartando presión externa de cualquier índole; así mismo, regula las condiciones y procedimientos por los que se puede acceder a esta solicitud de ayuda a morir; y la incluye en la cartera común de los sistemas públicos de



Testuak, beraz, eskubide indibidual berri bat sartzen du ordenamendu juridikoan: eutanasiarako eskubidea. Modu horretara, pazientearen autonomia eta askatasuna babesten da, eta, aldi berean, segurtasun juridikoa bermatzen da, bai eta hiltzen laguntzeko ekintzan parte hartu behar duten osasun-langileen kontzientzia-askatasuna errespetatzen ere.

Legea behin betiko onetsi delarik, administrazioei dagokie orain hura garatzea, eta, era berean, Eutanasia arautzeko Legea albait gehien zabaltzeko mekanismoak jartzea, eskubide berri horren ezagutza eta herritar guztiek hartaz baliatzeko dituzten baldintzak eta bermeak sustatze aldera.

Horiek hala direla, ezinbestekotzat jotzen dugu udalen konpromisoa, herritarrengandik hurbilen dauden eta haien eskubidea zabaltzea lortuko duen pedagogia zibiko bat transmititzeko gaitasun handiena duten administrazioak diren aldetik.

Horiek hala direla, gure udal-taldeak erakunde-adierazpen hau aurkezten du, eztabaidatu eta onesteko:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die administrazio eskudunei, heriotza duina defendatzen duten erakundeekin lankidetzan, egin ditzatela herritar guztientzako informazio-kanpainak, dibulgazio-hitzaldiak eta udal-ekipamenduetan eskuragarri egongo diren hedapen-materialak heriotza duina izateko eskubide berriari buruz (Eutanasia arautzen duen Legean jasoa), bai eta aurretiazko borondateen dokumentuari buruz ere, Eusko Legebiltzarrak onetsitako bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko uztailaren 8ko 11/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die administrazio eskudunei antola ditzatela heriotza duinari buruzko eskubideari, eutanasia-legeari eta aurretiazko borondateen dokumentuari buruzko prestakuntza-ekintzak gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat, herritarrei horri buruzko informazioa eta aholkularitza eman diezaieten.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die administrazio eskudunei jakinaraz diezaietela ebatzen hau zaharren egoitzei eta, horrekin batera, eska

salud.

El texto, por tanto, introduce en el ordenamiento jurídico un nuevo derecho individual: el derecho a la eutanasia, amparando así la autonomía y la libertad del/a paciente, al mismo tiempo que se garantiza la seguridad jurídica y el respeto a la libertad de conciencia del personal sanitario llamado a colaborar en el acto de ayudar a morir.

Tras su aprobación definitiva, corresponde ahora que las diferentes administraciones la desarrollen y, asimismo, habiliten los mecanismos oportunos y necesarios para dar la máxima difusión a la Ley de Regulación de la Eutanasia, promoviendo el conocimiento de este nuevo derecho y las condiciones y garantías de acceso a toda la ciudadanía.

Por todo lo expuesto, entendemos imprescindible el compromiso de los Ayuntamientos, en tanto administraciones más cercanas y más capacitadas para transmitir una pedagogía cívica que logre ensanchar el derecho de los ciudadanos y las ciudadanas.

Por todo ello, nuestro grupo municipal presenta para su debate y aprobación la siguiente:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a las administraciones competentes a realizar, en colaboración con las entidades de defensa de la muerte digna, campañas informativas, charlas divulgativas y materiales de difusión accesibles en equipamientos municipales, dirigidas a toda la ciudadanía, sobre el nuevo derecho a una muerte digna, contemplado en la Ley de regulación de la eutanasia, así como sobre el Documento de Voluntades Anticipadas de acuerdo a lo establecido en la LEY 11/2016, de 8 de julio, de garantía de los derechos y de la dignidad de las personas en el proceso final de su vida aprobada por el Parlamento Vasco.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a las administraciones competentes a realizar acciones formativas dirigidas a las profesionales de los servicios sociales en lo relativo al derecho sobre muerte digna, ley de eutanasia y Documento de Voluntades Anticipadas, de manera que puedan informar y asesorar a la ciudadanía al respecto.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a las administraciones competentes a trasladar a las residencias de mayores esta resolución, instándoles a



diezaietela sarbide-protokoloetan heriotza duinerako eskubideari buruzko item bat sartzeko, eta, halakorik egin ezean, hartarako bidea errazteko.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die administrazio eskudunei egin ditzatela egin beharreko ekintzak aurretiazko borondateen agiriak udaletako erregistro orokorrean eta erregistro laguntzaileetan jasotzeko eta agiri horiek Autonomia Erkidegoko Erregistrora bidaltzeko”.
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2023ko maiatzaren 9an.

incluir en los protocolos de acceso un ítem sobre el DVA, si lo tienen realizado, y de no ser así, facilitar su otorgamiento.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a las administraciones competentes a llevar a cabo las acciones oportunas para la recepción en el Registro General y en los Registros Auxiliares de los ayuntamientos de los Documentos de Voluntades Anticipadas, y a su remisión al Registro Autonómico de dichos Documentos de Voluntades Anticipadas recibidos”.
=====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 9 de mayo de 2023.

BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES

Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**